

Kriminologiako Gradua aztergai-5:

AUZITEGIKOPSIKOPATOLOGIA: parafiliak

Irakasgaia: Komunikazioa Euskaraz Arlo Juridikoan

1

Janire MELENDRE SAN PEDRO

AURKIBIDEA: I. Laburpena. -II. Sarrera: 1. Auzitegiko psikopatologiaren definizioa. 2. Parafiliaen definizioa. **-III. Parafiliak:** 1. Exhibizionismoa.- 2. Sadismoa.- **IV. Zer eskaintzen diote zuzenbideko zein kriminologiako ikasle, aditu zein profesional bati?.** -V. Bibliografia.

I. Laburpena

Lan honen bitartez, Auzitegiko psikopatologiaren kontzeptua landuko da. Baina, batez ere, parafiliak zer diren azalduko da. Horretarako, bi parafilia ezberdin aztertuko dira, hain zuzen, exhibizionismoa eta sadismoa.

Lehenengo, auzitegiko psikopatologia zer den eta zientzia honek zer aztertzen duen azalduko da. Behin kontzeptua definituta diziplina honetan lantzen diren eduki teoriko-praktikoak aipatuko dira.

Ondoren, gai honen inguruan aipatutako eduki teoriko-praktikoetako bat aukeratu eta azalduko da. Kasu honetan, parafiliak landuko dira. Parafiliekin hasteko, zer diren eta gai honek ekartzen dituen gorabeherak aztertuko dira. Ondoren, aurretik aipatu den bezala, bi parafilia landuko dira, exhibizionismoa eta sadismoa.

Azkenik, Auzitegiko psikopatologiak Zuzenbideko edo Kriminologiako ikasle edo profesional bati eskaintzen dionaren inguruan hausnartuko da.

Hasteko eta lana honen gaian kokatzeko, Auzitegiko psikopatologia eta Parafilien inguruko informazioa emango da. Bertan, bi kontzeptuen definizioa azalduko da eta elementu garrantzitsuei buruzko informazioa gehituko da, esaterako, parafilien inguruko gatazka.

1. Auzitegiko psikopatologia: definizioa

Etimologikoki, “auztegiko psikopatologia” aztertzean ikus daiteke psikopatologia hitzak erreferentzia egiten diola “psyché” arima edo arrazoiari, “páthos” gaixotasunari eta “logía” arrazonamenduari. Auzitegi hitza, berriz, gazteleraz “forense” da, “foro” hitzetik eratorria. Honen esanahiak erreferentzia egiten dio herritarrek biltzen ziren lekuetara. Bertan, haien eskubideak edota ohiko arazoak eztabaidatzen zituzten. Zenbaitetan haien eskubideak defendatzeko hizlariak kontratatzen zituzten. Gaur egun, berriz, auzitegi hitzak juztiziaren funtzionamendurako beharrezkoak diren diziplinei egiten dio erreferentzia.

Horregatik, definitu ahal izango genuke auzitegiko psikopatologia delituzko portaeretan murgilduta dauden gizakien inguruko datuen eta printzipioen aplikazioa bezala. Delituzko portaerak, biktimekin, biktimarioekin edota testiguekin izan daitezke. Hauek, prozesu legal baten barne egon beharko dira. Beraz, esan dezakegu, auzitegiko psikopatologia bi zientzien elkargunea dela; alde batetik, psikologia, ezin duelako epaitu, salatu edota defendatu eta bestetik, zuzenbidea ezin duelako portaeraren motibazioei erantzunik eman.

Honen ildotik jarraituz, aipatu beharra dago bi zientzia hauen ikerketa helburua pertsonaren azterketa izango dela. Hala ere, ikuspuntu eta metodo ezberdinak erabiliko dituztela. Hori dela eta, haien ondorioak ezberdinak izango dira. Beraz, esan daiteke, bi zientzia hauek osagarriak izango direla.

Azkenik, ezinbestekoa da aipatzea, psikopatologiaren barnean gai ezberdinak lantzen direla, esaterako, eskizofrenia eta bestelako nahaste psikotikoak, parafilak, nahaste afektiboak, nahaste disoziatiboak, nahaste adiktiboak, nortasunaren nahasteak etab. Hurrengo atalean, parafilien kontzeptua, gatazka eta mota ezberdinak aztertuko dira.

2. Parafiliak: definizioa eta eztabaida

Etimologikoki, parafilia hitza grekeran izango du bere jatorria. Zehazki, bi hitzez osatuta dago; “para”, desbideratzea esan nahi duena eta “filia” erakarpena esan nahi duena.

RAE-k parafilia hitza definitzen du esanez izaera sexualeko desbideratzea dela. Horretaz gain, aipatzen da, subjektu parafilikoak jokaera sexual normalaren parte ez diren estimulu zehaztuekin lortzen dutela kitzikadura sexuala.

Garrantzitsua izango da esatea, jarduera sexuala nahaste bezala kontsideratzeko beharrezkoa dela bere existentziak ekar dezala ondoez kliniko nabarmena eta esanguratsua edo sor ditzala zailtasunak harreman interpersonean edo hondatzea, baita adierazgarria izan beharko dena, eremu sozialean, laborean edo subjektuaren jardueraren beste arlo batzuetan.

Honen ildotik jarraituz, aipatu behar da, parafilien kasuan gatazka bat aurkezten da normaltasunaren eta anormaltasunaren artean. Bertan, urratsa edo muga ez dagoelako zehazki definituta eta sarritan irizpide eta faktore klinikoak ez ezik kulturalak, erlijiosoak edo moralak eta une historiko batekoak ere izan daitezke.

Gaur egun, normaltzat edo anormaltzat hartzen diren jokaera sexuak ez dute beste kultura edo garai batzuetan begirune bera izan. Esaterako, homosexualitatea duela oso gutxi arte begietsi zen patologia bezala gure mendebaldeko kulturaren, eta izan ere buru-nahasteen nazioarteko sailkapenetatik desagertu da 1988tik aurrera.

Amaitzeko, parafilien barnean nahaste ezberdin asko daudela azpimarratu behar da. Hauen artean, aurkitu ditzakegu, exhibizionismoa, fetitxismoa, froteurismoa, pedofilia, masokismoa, sadismoa etab. Ondoren, exhibizionismoa eta sadismoa aztertuko dira.

III. Parafiliak

1. Exhibizionismoa

DSM-IV-TR-aren aburuz exhibizionismoa da espero ez duen pertsona ezezagun baten aurrean bere sexu-organoen erakustearekin erlazionatutako fantasia sexual errepikariak eta oso kitzikagarriak, bulkadak edo jokabideak ematea.

Garrantzitsua izango da aipatzea, parafilia honetan, maiztasun handiagoarekin ematen direla arazo forenseak eta ia gizonetan esklusiboa den parafilia izango dela.

Gainera, kasuaren arabera, subjektu batzuentzat exhibizionismoa euren jarduera sexual bakarra izango da. Beste batzuk, aldiz, jokaera sexual hau normalizatutako sexu harremanekin bateratuko dute.

Subjektu hauen ezaugarri nagusietarikoa izango da zenbat eta erruduntasunerako gaitasun gehiago izan, orduan atxiloketa ekiditeko arreta gehiago izango dutela. Atxiloketa ematen bada, arreta barik jokatzegatik edo estutasun handiko edo behar konpultsiboko gaitza pairatzegatik izango da.

Exhibizionistaren helburua lekukoarengan beldurra eragitea izango da. Honek gustatuko izango du oihu egin dezala, ikara dadila. Baina, lekukoak barre egiten badu edo ez badu serio hartzen, exhibizionista bere ekintzan zapuztuta sentitu ohi da, bilatutako kitzikadura lortu ezinik.

Azkenik, esna beharra dago, gaur egungo gizartearen modalitate bezala, interneten bitartez emandako exhibizionismo fenomenoak kontuan hartu behar dela.

2. Sadismoa

Parafilia sadomasokistaren alderdi aktiboa da. Zehazki, sadismoa izango da ekintza errealean kitzikadura eta jarduera sexualaren edo orgasmoaren bilaketa sufrimendu psikologikoa edo min fisikoaren bidez.

Honekin jarraituz, ezinbestekoa izango da aipatzea sexualitate arruntetan sadismoa eman daitekeela kitzikadura handitzeko. Zehaztu behar da, batzuetan sadismoan ekintzak baimenik gabe egiten direla baina, beste batzuetan, ekintza hauek beste pertsonaren onarpena dutela. Hala ere, sadismoa ondorio forense handienak izan ahal dituen parafilia izango da.

Sadismoan hiru teknika ezberdintzen dira. Lehenengoz, sadikoak bularretan, ipurmasailetan, saman, sabelaldean, izterretan edo sexu-organoetan hozkadak ematen ditu. Bigarrenengoz, organo genitalen edo gorputzeko leku erotikoketan mutilazioak egiten ditu, esaterako, zakila, titiburuak, bulba, belarriak etab. Hirugarren teknika, itotzea izango da.

Teknika guzti hauek batzuetan zehaztasunez, fintasunez eta krudelkeriaz egiten dituzte. Adibidez, “lizunkeriagatik krimena” non bortxaketak eta hilketak gerta daitezke, aipatu beharra dago, sadismoaren adierazpenik muturrekoena dena.

Garrantzitsua izango da aipatzea, sadismoa praktikatzten dutenek ez dutela biktimen profil zehatz bat izango. Hauek, zorizko eran hautatuak edo prostituten artean bilatuak izan daitezke sadikoaren ustetan haiek desagertu behar direlako eta zigorra merezi dutelako.

Horretaz gain, batzuetan sadikoak bere biktimen “oroigarri” bat eramaten du etxera, esaterako, hatz bat, titiburu bat edo asoziazio sexualarekiko beste gorputzaren zati bat. Baina, badaude sadikoak halako indarkeria eragitera iristen ez direnak eta praktikatzten dutena izaten direla jokoak, gutxi gorabehera arriskutsuak, klimax sexuala lortzeko, lokarrien, zigor leunen eta egoera iraingarrien bitartez.

Gainera, sadismoan bi talde ezberdintzen dira:

- Sadiko psikopatak. Hauek ekintzak era antolatuan egiten dituztenak.
- Sadiko psikotikoak. Hauek desantolatuak izango dira.

Amaitzeko, sadismoa hobeto ulertzeko eta gai interesagarri honetaz informazio gehiago lortu nahi bada, José Martín Amenabar Beitiak, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak “Sadismoa Versus Masoquismoa” artikulua irakurtzea gomendatu behar da.

IV. Zer eskaintzen diote parafilien inguruko analisiak kriminologiako ikasleei?

Kriminologia diziplina anitz batzen dituen zientzia da. Honen helburua, delitua, biktima eta jokabide kriminala ikertzea izango da. Honen bidez, azalduko dituelako delituaren kausak eta fenomeno hauen zergatiak. Horrela, prebentzio estrategiak eta ekintza bakoitzak izan ahal dituen ondorio espezifikoak garatu ahal izango ditu. Beraz, kriminologiarentzat psikopatologia oso baliagarria izan daiteke, esaterako, biktima eta jokabide kriminalak aztertzerako orduan.

Honen ildotik jarraituz, esan behar da ikuspuntu kriminologikotik ekintza deliktiboa gertatzeko hiru elementu eman behar direla kontsideratzen da:

1. Delitua egiteko motibatuta dagoen pertsona.
2. Biktima.
3. Biktimarekiko zaugarritasun pertzepzioa.

III. Ikasleen ekarpenak

Hiru elementu hauen inguruan nabarmendu behar da psikopatologiak, beste diziplina batzuk bezala, intzidentzia handia izango duela. Adibidez, delitua egiteko motibatua dagoen pertsona agian patologiaren bat pairatu dezake eta horrek eragina izan dezake delituan eta delituak ekarriko dizkion ondorioetan.

Horretaz gain, aipatu beharra dago, gaixotasun mentalak delituekin lotzen direla. Hau gertatzen da portaera kriminal batzuk nahaste mentalekin erlazionatu ahal direlako. Hortaz, aurretik aipatu dugun bezala, kriminologiak delitua aztertzen badu eta jokabide kriminal hauen atzean nahaste mentalak badaude, kriminologiarentzat psikopatologiak duen garrantzia zuzenean ikus dezakegu.

V. Bibliografia

Amenabar Beitia, J. M. (2011). Sadomasoquismo Versus Sadismo. Revista do Instituto dos Magistrados do Ceará , 167-184.

Arrona Palacios, A. (2012). El Inicio de las Investigaciones Psicopatológicas. Archivos de Criminología, Seguridad privada y Criminalística , 2-6.

Carrasco Gómez, J. J., & Maza Martín, J. M. (2010). Tratado de Psiquiatría Legal y Forense. Alcobendas, Madrid: La Ley.